

**KONTROL EKONOMIKO NORMATIBOAREN TXOSTENA, KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOAK EMANA, DATUEN BABESARI ETA DATUAK BABESTEKO EUSKAL AGINTARITZARI BURUZKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA DELA ETA.*****-Tramitagune- DNCG\_LEY\_6043/21\_02***

Urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen baitu, III. tituluko IV. kapituluaren arautzen du kontrol ekonomiko normatiboa, zeina nahitaezkoa den, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eginiko kontrol-txostenaren bidez gauzatzen den.

Kontrol horrek, alderdi ekonomiko-antolatzailean, barne hartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoko organo eta entitate ororen eraketaren zein ezabaketaren ikuskeraketa, bai eta organo horien aldaketan eta berregituraketan ikuskeraketa ere.

Kontuan izanik aipatu araua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren III. kapituluako 3. atalari xedatu duena, eta Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen otsailaren 23ko 69/2021 Dekretuaren 4. artikulua dioena, honako txosten hau ematen da:

**TXOSTENA****I. XEDEA.**

Goiburuan adierazitako proiektuaren xedea da, proiektuaren 1. artikulua xedatu duenaren arabera: (1) datuen babesaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen araudia egokitzea Europako eta Estatuko araudi aplikagarria eta (2) Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren (DBEA) araubide juridikoa erregulatzea.

Xedapen indargabetzaileak indarririk gabe uzten ditu 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa, lege hori garatzeko xedapenak eta legean bertan xedatutakoaren aurka doazen edo bertan jasotakoarekin bateraezinak diren edo kontraesanetan dauden maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

## II.- AZTERKETA.

### A).- Testua eta edukia

Aurreproiektuaren 2. artikulua arauaren aplikazio-eremua ezartzen du. Kontuan hartu behar da ezen, Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 4. artikulua 3. eta 4. apartatuetan ezarritakoaren arabera, Euskal Sektore Publikoaren parte direla 2. artikulua egungo idazketan jaso ez diren beste erakunde batzuk. Hori dela eta, gure gomendioa da legearen aplikazio-eremuaren definizioa berrikus dadila, 3/2022 Legeak Euskal Sektore Publikoari eman dion definizio berrira zabaltzea komeni den ikusteko.

### B) .- Antolamendu-alderdiak

Aurreproiektuak antolamendu-eragina du EAEko Administrazioaren eremuan, DBEARi ezarri dion konfigurazioaren aldaketari dagokionez, EAEko eremuan datu pertsonalen babesaren zaintzeko ardura duen erakunde gisa. Gai horri buruz, oharpen hauek egingo ditugu:

**1.-** Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren konfigurazioa eta araubide juridikoa aldatu da, eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren izena hartu du. Aurreproiektuaren atarikoan esaten denaren arabera: *"Hala, berebiziko aldaketa gertatzen da datuen babesaren arloko erakunde-antolaketan. Aldaketa horrek, Agintaritzaren izenaz harago, eragina du haren araubide juridikoan, antolaketan eta eskumenetan, horrela 2016/679 (EU) Erregelamenduak ezartzen duen eginkizun-sorta garatzen baita"*.

Erakundearen izaerari eta araubide juridikoari dagokienez, 2/2004 Legearen 10. artikulua Bulegoa sortu zuen, nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu osoa zuen *zuzenbide publikoko erakunde gisa*, administrazio publikoekiko guztiz independente jarduteko bere eginkizunak betetzean. Konfigurazio hori ez dator bat EAEko Sektore Publikoa osatzen zuten konfigurazioetako batekin ere, garai hartan Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 7. artikuluan definitu baitziren, eta, beraz, ez zegoen sektore horretan txertatuta.

Beste alde batetik, aurreproiektuaren 3. artikulua honela definitzen du Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren (DBEA): *administrazio-agintaritzaren independentea* da, nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu erabatekoa izango ditu, eta administrazio publikoekiko inongo loturarik gabe beteko ditu bere eginkizunak.

Definizio horretan DBEA zuzenbide publikoko erakundea dela aipatzen ez bada ere, ez dago zalantzarik berriki onartutako Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legeak (EHAA, 97. zk., maiatzaren 20koa) 4. artikuluan euskal sektore publiko izendatzen eta definitzen duenaren barruan dagoela (EAEko sektore

publikoaz gain, euskal administrazio publiko guztietako sektore publiko guztiek eta izaera publiko edo erdipublikoko beste erakunde batzuek osatzen dute). Ondorioz, 3/2022 Legearen 5. artikuluan jasotako jarduketa-printzipioak aplikatu behar zaizkio, bai eta euskal sektore publikoko erakundeen sorrerari eta eraldaketari aplikatu beharreko printzipioak ere, 6. artikuluan ezarriak.

**2.-** Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legeak, II. tituluko I. kapituluan, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeen tipologia eta sailkapen hau ezartzen du:

**8. artikulua.- Administrazio orokorra eta instituzionala.**

1.- *Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorra da lurralde-entitate bakarra gainontzeko entitateak mendean eta atxikiak dituen. Entitateok, bestalde, lege honetan ezarritako sailkapenaren arabera dagokien pertsonifikazio juridikoa hartu beharko dute.*

2.- *Hurrengo ente instituzional mota hauek daude Administrazio instituzionalaren barruan; denek erabil ditzakete ahal publikoak:*

a) *Organismo autonomoak.*

b) *Zuzenbide pribatuko ente publikoak.*

**9. artikulua.- Sektore publikoari atxikitako edo lotutako entitate instrumentalak.**

1.- *Honako hauek osatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa: Autonomia Erkidegoko Administrazio orokor eta instituzionalaren barruan dauden entitateek eta haien sektore publikoko ente instrumentalek. Hauek dira azken horiek:*

a) *Sozietate publikoak.*

b) *Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazioak.*

c) *Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoak.*

2.- *Entitate horiek denek nortasun juridiko propioa izango dute, gainerako entitateek dutenaz bestelakoa.*

**10. artikulua.- Administrazio independentea.**

1.- *Salbuespen gisa, erabakitze-funtzioak sortu ahal izango dira, eta funtzio horiek esleitu ahal izango zaizkie kide bakarreko organoei, kide anitzeko organoei, organismo autonomoei, zuzenbide pribatuko ente publikoei edo partzuergoei. Aipatutako entitate horiek Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren barruko administrazio independentetzat joko dira, beraien zereginak betetzeko independentzia edo autonomia berezia behar dutenean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokor edo instituzionalarekiko edo, hala badagokio, hura osatzen duten entitateekiko.*

2.- *Administrazio-agintaritza independenteek enpresa- edo merkataritza-interesak alde batera utzita beteko dituzte beren jarduerak eta xedeak. Funtzionamendu- eta jardueraredua demokrazian eta parte-hartzean oinarritua izango da.*

3.- *Horrelako kasuetan, sortze-arauak lege-mailakoa izan beharko du eta eduki hau bildu beharko du nahitaez:*

a) Azalpena: zergatik behar den, eta zer independentzia funtzional edo autonomia ematen zaion. Halaber, ziurtatu beharko da esleitutako funtzioak ez daudela bikoiztuta.

b) Nola osatzen diren erabakitze-funtzioak betetzeko hartu beharreko erabakiak hartzeaz arduratzen diren organoak, eta zer irizpide erabiltzen den organo horiek izendatzeko. Horretarako, bermatu egin beharko da organo horietako kideak independenteak eta adituak direla eta funtzioak betetzeko lanbide-gaitasuna zein kaudimen teknikoa dutela; era berean, bermatu beharko da haien bateraezintasunen eta ordezkotzen araubidea, eta gutxienez bi urtean ez direla kargutik mugituko.

c) Zer erabakitze-funtzio agintzen zaien, eta nola hartzen diren erabakitze-funtzioak jasotzen dituzten erabakiak, kolegialtasunaren edo espezialitate teknikoaren printzipioaren arabera.

4.- Artikulu honek aipatzen dituen organoetako kideak, bestalde, legeek xedatutako abstenitze-, errekusatze- edo ezgaitasun-arrazoien mende egongo dira, eta ezartzen zaizkien diziplina- eta etika-araubideak bete beharko dituzte.

5.- Administrazio independenteko organo edo entitate horiek berregituratzeko eta azkentzeko, haien sortze-araua aldatzen edo indargabetzen duen lege-mailako arau bat beharko da.

EAEko legegileak, EAEko sektore publikoaren konfigurazioa diseinatzean, Estatuko sektore publikoa osatzen duten erakunde instituzionalen modalitateetako bat sartzen du, administrazio-agintaritza independenteak [Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 84.1.b), 109. eta 110. artikulua], erakunde batek, bere eginkizunak betetzeko, gainerako Administrazioarekiko independentzia edo autonomia berezia behar duenerako. Hala ere, ez ditu modalitate autonomotzat hartzen, ez eta EAEko Sektore Publikoa osatzen duten gainerako entitateetatik bereizitako araubide juridiko espezifikodun modalitateetat ere (40/2015 Legeak estatuko agintaritza independenteekin egiten duen bezala); aitzitik, zehazten du nahitaez organo (pertsona bakarrekoa edo kide anitzekoa), organismo autonomo, zuzenbide pribatuko ente publiko edo partzuergo izan beharko dutela, esleitura dituzten eginkizunak betetzeko egokiena denaren arabera.

Gure ustez, legegilearen asmoa izan da administrazio-agintaritza independenteak EAEko Sektore Publikotik kanpo ez uztea, eta, hala ere, haien independentzia eta autonomia bermatzea haien eginkizunak betetzean eta hartu beharreko erabakiak hartzean.

Estatuko eredian, administrazio-agintaritza independenteak, ezaugarri espezifikoak izan arren, Estatuko sektore publikoaren parte dira, eta berariaz zehazten da zein den haien araubide juridikoa. Datuak Babesteko Espainiako Agentzia administrazio-agintaritza independentea da abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 44. artikulua arabera. Lege organiko hori datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa da. Konfigurazio hori gorabehera, lege organikoak

berak ñabartzen du Agentziaren araubide juridikoa, haren berezitasunak kontuan hartuta<sup>1</sup>.

Are gehiago, EAEn, Lehiaren Euskal Agintaritza organismo autonomoak<sup>2</sup> independentzia eta autonomia osoz betetzen ditu bere eginkizunak, nahiz eta Euskal Sektore Publikoko Administrazio Institutuzionalaren parte izan.

Nolanahi ere, Bulego honen iritziz, 3/2022 Legeak ezarritako Euskal Sektore Publikoaren lege-konfigurazio berriarekiko koherentzia eta errespetua izateko (*“erreferentziazko lege baten aldeko hautu sistematikoa egin da, euskal sektore publikoaren antolaketa ezartzen duten arauen multzoa antolatzeko”*, hitzaurrean berariaz adierazten den bezala), DBEak izaera hau hartu behar du: 3/2022 Legearen

---

<sup>1</sup> **44. artikulua. Xedapen orokorrak.**

1. Datuak Babesteko Espainiako Agentzia estatu-mailako administrazio agintaritza independentea da; hain zuzen, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusietako bat. Agentziak nortasun juridikoa eta gaitasun publiko eta pribatu erabatekoa du eta botere publikoetatik erabat independente jarduten du bere eginkizunetan ari denean.

«Datuak Babesteko Espainiako Agentzia, Administrazio Agintaritza Independentea» izango da agentziaren izen ofiziala, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 109.3 artikulua xedatutakoaren arabera.

Gobernuarekiko harremana Justizia Ministerioaren bidez izaten du.

2. Datuak Babesteko Espainiako Agentzia Espainiako Erresumako datuak babesteko agintaritzen ordezkari komuna izango da Datuak Babesteko Europako Lantaldean.

3. Datuak Babesteko Espainiako Agentzia, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, eta, hala badagokio, Estatuko Fiskaltza Nagusia lankidetzan arituko dira, justizia-administrazioaren eremuko datu pertsonalak babestearen arloan Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoak esleitzen dizkien eskumenak egoki egikaritzeko.

**45. artikulua. Araubide juridikoa.**

1. Datuak Babesteko Espainiako Agentzia (EB) 2016/679 Erregelamenduak, lege organiko honek eta berau garatzeko xedapenek jasotzen dutenaren arabera arautuko da.

Era osagarrian, haren erabateko independentziarekin bateragarri denean, eta ezertan eragotzi gabe lege organiko honen 63.2 artikuluan aurreikusitakoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 110.1 artikuluan jasotakoari jarraituko zaio.

2. Gobernuak, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak proposatua, haren estatutua onartuko du errege-dekretu bidez.

<sup>2</sup> **1/2012 Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa, 1. artikulua:**

1.- *Lehiaren Euskal Agintaritza sortu da, administrazio erakunde autonomo gisa, ekonomia-politikaren eta lehiaren defentsaren ardura duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikia, eta berezko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa izango ditu bere eginkizunak betetzeko.*

2.- *Lehiaren Euskal Agintaritzak erakunde- eta funtzio-autonomia izango du, dituen eginkizunak betetzeko.*

3.- *Lehiaren Euskal Agintaritzak zuzenbide publikoaren mende jarriko du bere jarduera, eta lege honek, administrazio publikoko erakunde autonomoak arautzen dituzten xedapenek, nahiz horiek garatzen dituzten arauak gidatuko dute Agintaritza.*

4.- *Halaber, objektibotasunez jardungo du, ordenamendu juridikoaren mende, eta administrazio publiko eta eragile ekonomikoekiko inongo loturarik gabe beteko ditu bere eginkizunak, helburuak lortzeko.*

5.- *Ekonomia politikaren eta lehiaren defentsaren ardura duen sailak parte hartuko du Lehiaren Euskal Agintaritzaren gidalerroak ezartzeko lanean, eta gidalerrook agintaritzaren urteko jarduera programan jasoko dira.*

II. tituluko I. kapituluaren ezarritako erakunde instituzionaletako batena. Behar izanez gero, aurreproiektuaren testuan bertan sartuko dira ordenamendu juridikoak esleitzen dizkion eginkizunak eraginkortasunez eta efizientziaz betetzeko ezinbestekoak diren espezifikotasunak.

Horregatik guztiagatik, aurreproiektuak DBEAr ematen dion konfigurazioak –3/2022 Legeak berriki ezarritako EAEko Sektore Publikoaren diseinu instituzionaletik kanpo uzten baitu, espedientean EAEko administrazio-agintaritzaren independenteentzat lege diseinatutako eredutik aldentzeko beharra edo arrazoizkotasuna ondorioztatu ahal izateko behar adinako oinarririk gabe– proiektuari buruzko **kontrako iritzia** ematera garamatza alderdi horretan.

**3.-** Agintaritzaren antolaketa-egiturari dagokionez, Bulegoarentzat ezarritako egitura berari eusten zaio, baina maila handiagoa eman zaio presidenteari eta aholku-batzordeko kide gehiago jarri dira.

### **C) .- Aurrekontuen, ondarearen eta finantza-kontrolaren araubidea**

Nahiz eta, aurreproiektuaren atarikoan dioten bezala, aldaketa gertatu DBEBren konfigurazioan (*"Hala, berebiziko aldaketa gertatzen da datuen babesaren arloko erakunde-antolaketan. Aldaketa horrek, Agintaritzaren izenaz harago, eragina du haren araubide juridikoan, antolaketan eta eskumenetan, horrela 2016/679 (EU) Erregelamenduak ezartzen duen eginkizun-sorta garatzen baita"*), egia esan, jarduera-esparrua zabaltzeaz harago, ez diogu funtsezko aldaketarik ikusten haren araubide juridikoari.

Hala, zenbait aurreikuspenen idazketa zehatzean aldaketak egon arren, zuzenbide publikoko enteen izaerari eutsi zaio (nahiz eta izena aldatu), eta mantendu egin dira haren ekonomia- eta aurrekontu-araubidearen, ondare-araubidearen eta kontabilitate publikoaren funtsezko ezaugarriak (2/2017 Legegintzako Dekretuaren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera), egitura organikoa (zuzendaria edo lehendakaria eta kontseilu aholku-emailea, hargatik eragotzi gabe aldaketa batzuk egitea lehengoaren izendapenean eta mailan eta bigarrenaren osieran, haien izaera aldatzen ez badute ere), langileen araubide juridikoa (orain DBEAr berak ezarritako baldintzetan hautatutako funtzionarioek soilik osatuko dute) eta ekonomia-, finantza- eta kudeaketa-kontrolaren mende jartzea, bai eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren fiskalizazioaren mende ere.

Beraz, ez dago funtsezko aldaketarik DBEBren indarreko araubide juridikoan, Bulego honek berriaz aztertzea merezi duenik.

## D).- Ekonomia- eta aurrekontu-eragina

Jaurlearitzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeak 57. artikuluan agintzen du lege-proiektuekin batera azterketa bat egin behar dela, lege berriak eragin dezakeen aurrekontu-kargari buruzkoa.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.3. artikuluan ezarritakoaren arabera, *«expedienteak memoria ekonomiko bat edukiko du, eta, hor, egitekoa den arauaren kostuaren zenbatespena azalduko da: gastuak eta diru-sarrerak zenbatuta agertuko dira, eta, orobat, herri-administrazioaren aurrekontuetan izango duen eragina, finantzaketa-iturri eta -erak nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekonomia- eta araudi-kontrolaren gaineko arauak zehaztutako beste alderdi batzuk. Egitekoa den arau horren aplikazioak beste herri-administrazio batzuei, banakoei eta oro har ekonomiari ekarriko dion kostua ere neurtuko du».*

Kontrol ekonomiko-normatiboaren egikaritzea arautzen duten arauak dagokienez, zehazki, *Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42. artikulua* ezarritakoaren arabera, kontrol ekonomiko normatiboari buruzko txostena emateko, ezinbestekoa da memoria bat bidaltzea, honako datu hauek kontuan hartuta, besteak beste: araua indarrean jartzeak ekarriko dituen aurrekontu-gastu eta -sarreraren zenbatespena; gastu horiek finantzatzeko moduak; xedapenaren aurrekariak eta justifikazioa; xedapena txertatuko den aurrekontuko programa ekonomikoa, haren helburuak, ekintzak eta adierazleak identifikatuta; araua aplikatzeak ekonomian eta gizartean izango duen eraginaren ebaluazioa; proposatzen den arauaren ildo nagusiak eta oinarri juridikoak ezagutzeko bide eman dezaketen datu, txosten eta azterlan guztiak. 43. artikulua, bere aldetik, kontrol ekonomiko-normatiboa jorrotzen baitu, ekonomia- eta antolakuntza-alderdiei dagokienez, honako hauek eskatzen ditu, aurreko artikulua exijitutako dokumentazioaz gain: Entea edo organoa sortu edo, hala behar bada, aldatu eta berregituratu beharra edo horren egokitasuna justifikatzea, era horretan, burutu behar diren edo haietan sartuko deneko programa ekonomiko eta aurrekontu mailakoak bete ahal izateko; erabili beharko diren giza baliabideen aurreikuspena, haien ordainsari eta kostuak deskribatuta, bai eta eraginpean geldituko diren baliabide materialak ere, gastu arrunta ala kapitalekoa dakarten bereizita; eta jarduketaren kostuari eta zerbitzuen errendimendu edo baliagarritasunari buruzko ikerketa ekonomikoa. Hala behar duenean, lau urterako plan ekonomikoa ere bai.

Laburbilduta, araua onetsi aurreko hausnarketa-prozesuaren barruan, ezarri nahi den araudiak eragingo duen gastu publikoa zehatz-mehatz ebaluatu behar da, gastu publikoaren ekonomia- eta efikazia-printzipioak betetzen direla bermatzeko. Eta arauak partikularrengan eta ekonomian, oro har, izango duen eragina ere balioetsi behar da, bideragarria eta zentzuzkoa dela bermatzearren.

Proiektuaren aurreikuspenek EAEko aurrekontu orokorretarako gastuan izan dezaketen eraginari dagokionez, espedientearen memoria ekonomikoak aipatzen du, dakarren gastu-handitzea justifikatzen duen premisa gisa, nabarmen handitu dela DBEAren kontrolaren eta gainbegiratzearen mende geratzen diren erakundeen kopurua, eta haren eginkizunak eta ahalak zabaldu direla, 2/2004 Legean ezarritakoekin alderatuta.

Eragin ekonomiko nagusia, beraz, DBEAri giza baliabide eta baliabide material gehiago emateko beharrak eragingo du, lege berriaren aplikazio-eremu objektiboaren eta subjektiboaren zabalkundeari behar bezala erantzuteko. Memoria ekonomikoak jasotzen duena da giza baliabide berriak sartzeak eragingo lukeen gastu-gehikuntzaren zenbatespen zehatza.

*"Argi dago etorkizuneko legearen aurreikuspenei erantzun eraginkorra emateko ezinbestekoa izango dela DBEAri giza baliabide gehiago esleitzea, lan-kargari egokiro erantzuteko, agerikoa baita nabarmen handitu dela. Zenbatespenen arabera, Aholkularitza Juridikoaren eta Ikuskaritzaren Arloan 5 teknikari-lanpostu berri beharko dira: letradu/izapidegile/ikuskatzaile lanpostu bat (A taldekoa, 27. mailakoa); eta beste lau letradu/izapidegile/ikuskatzaile lanpostu (A taldekoak, 26. mailakoak). Gainera, sortzen den lanari aurre egiteko, beharrezkoa da bi administrari-lanposturekin hornitzea aholkularitza, gaur egun ez baitu halakorik — lanpostu bat C taldekoa, 20. mailakoa; eta beste bat C taldekoa, 18. mailakoa—.*

*Fitxategien Erregistroa desagertzean, egungo Fitxategien Erregistroa eta Auditoria Zerbitzua Arrisku Teknologikoak Ebaluatu eta Aztertze Unitatea bihurtuko da, eta haren funtzio nagusiak izango dira Zuzendaritzari eta DBEAren gainerako unitateei aholku ematea teknologiararen azken aurrerapenei eta horiek datuen babesean dituzten ondorioei buruz, aurretiaz kontsultatzen zaizkion inpaktu-ebaluazioei buruzko txostena ematea eta segurtasun-arrakalen jakinarazpenak kudeatzea. Funtzio horiek Fitxategien Erregistro eta Auditoria Zerbitzuko egungo langileek bete ditzakete. Hala ere, egokiagoa izango litzateke Idazkaritza Nagusiaren ardurapekoak izatea DBEAk IKT-Informazioaren eta Komunikazioen Teknologien alorrean dituen barne-premiei arreta emateko eta laguntzeko zereginak, eta, horretarako, informatikako teknikari berri bat (A taldekoa, 26. mailakoa) beharko litzateke.*

*Aurreproiektuak langile gehiagoren beharra eta ondorio ekonomikoak erakarriko dituzenez, bi administrari (C taldekoak, 16. mailakoa eta 18. mailakoa) gehitu beharko litzazkioke DBEAren Idazkaritza Nagusiari, kudeaketa ekonomikorako eta giza baliabideen kudeaketarako.*

[...]

*Plaza berriak sortzeak 615.627,12 euro handituko lituzke 2022ko ekitaldirako aurrekontuan jasotako langile-gastuak (1.639.648 €), honela banatuta:*



Kop.	POSTUA	TALDEA	MAILA	DEST.	BER.	NOMINA	GIZ. SEG.	ITZARRI % 2,5
1	letradu/izapidegile/ikuskatzaile (1)	A	27	II	A	63.175,15	12.766,08	1.579,38
4	letradu/izapidegile/ikuskatzaile (2)	A	26	II	B	233.831,60	51.064,32	5.845,79
1	Administrari (1)	C	20	V	A	38.325,60	9.849,68	958,14
1	Administrari (2)	C	18	V	C	33.727,73	8.668,03	843,19
1	Informatikako teknikaria	A	26	II	B	58.457,89	12.766,08	1.461,45
1	Administrari (3)	C	16	VI	C	30.474,32	7.831,90	761,85
1	Administrari (2)	C	18	V	C	33.727,73	8.668,03	843,19
<b>10</b>						<b>491.720,02</b>	<b>111.614,11</b>	<b>12.292,99</b>

Lanpostu berrien kostu osoa, beraz, 615.627,12 euro izango litzateke. Kontuan hartuta, memoria ekonomikoak zehazten duenaren arabera, 2022ko ekitaldirako langile-kostuak 1.639.648,00 euro direla guztira, langile-gehikuntzak % 37,54koigoera handia ekarriko du kostuetan.

Gainerakoan, memoria ekonomikoak iragarri besterik ez du egiten egoitza berri bat beharko litzatekeela edo egun dagoena handitu, eta, oro har, zenbatesten ez dituen funtzionamendu- eta inbertsio-gastu handiagoak daudela.

Aipatutako proiektuak izan dezakeen aurrekontu-eragina aztertzeaz arduratu da Aurrekontu Zuzendaritza, eta 2021eko azaroaren 11ko txostenean honako hau adierazi du<sup>3</sup>:

*Datu Pertsonalak Babesteko Legea indarrean jartzeak 2022ko eta etorkizuneko aurrekontuetan izan lezakeen eragina dela eta, Segurtasun Sailak igorritako agiriari aztertu ostean, Aurrekontu Zuzendaritzaren ustez, hura aplikatzearen kostu ekonomikoak Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren urteroko aurrekontuetako partiden kontura joango dira, eta partida horiek urtero doituko dira Gobernuak onartzen dituen gidalerro ekonomikoetara.*

*Langile-gastuei dagokienez, memoria ekonomikoan adierazten da 1. kapituluaren kostua 615.627,12 euro igoko dela Datu Pertsonalak Babesteko Lege berria onartzearekin batera.*

*Nolanahi ere, plaza berriak sortzea izapidetzeko, sortze-unean indarrean dagoen araudia bete beharko da.*

<sup>3</sup> 464/1995 Dekretuak, urriaren 31koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen ditu, eta 44.6 artikuluan xedatu duenez, "ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 27.4. artikuluan xedatzen direnen ondorioetarako, kontrol ekonomiko eta araubidezkoari buruzko txostenak, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko edozein organok, indarrean dauden xedapenetan agintzen denaren arabera, eman beharreko txosten guztiak bereganatuko ditu. Aurrekontu, aurrekontu-programazio, kontaduritzza, ogasun eta finantza, diruzaintza, ondare, kontratazio eta zerga-administrazio mailako gaietan agintedunak izan behar dute organo horiek."

*Funtzionamendu-gastuei dagokionez, memoria ekonomikoan adierazten da helburu horretara bideratutako zuzkidura handitu behar dela.*

*2022an jasanaraz daitekeen kostua Legea onartzen denetik urteko zati proportzionalaren arabera izango da.*

*Egoki da azpimarratzea lege-aurreproiektuari buruzko memoria ekonomikoan ageri diren xedapenek ezin dutela, inola ere, aurrekontu-konpromisorik sortu, urteko Aurrekontu Orokorretan bakarrik jasotzen baitira horiek; beraz, lege hori egikaritu eta garatzeko urteko zuzkidura ekonomikoak EAEko Aurrekontu Orokorren legeek xedatutakoaren arabera izan beharko dira, eta, behar izanez gero, aurrekontu-aldaketa egokiak egin beharko lirateke, DBEA beharrezko dituen baliabidez hornitzeko.*

*DBEAk 2023ko aurrekontu-proiektuan sartu beharko ditu lege hau onartzearen ondoriozko gastu eta diru-sarrera gehigarri guztiak.*

Beste administrazio publiko batzuei, partikularrei eta, oro har, ekonomiari eragin diezaiekeen kostuari dagokionez, memoria ekonomikoaren amaieran adierazten da ez duela eraginik alderdi horietan.

Azkenik, **memoriak** diru-sarrera batzuk aipatzen ditu, DBEAren zehatzeko ahala egikaritzearen ondoriozko zehapenak ezartzetik etor litezkeenak, baina ez du inolako zenbatespen ekonomikorik egiten.

### **III. ONDORIOA.**

Egindako gogoetak kontuan hartuta, txosten honek aurkako iritzia ematen du, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan integratu gabeko erakunde gisa eratzeari dagokionez.